

IRITZIA

Ezkerreko baloreak



JUAN MARI ARREGI

Terni hiri industrial da, Italiako gerriko gorria zenean kokaturik. 110.000 biztanlerekin, siderurgiak 12.000 laguni ematen zien lana lehen, baina orain sektorea ez da 2.400 langilera iristen, azpikontratak kontuan edukita 3.000 lagun besterik ez dira bizi industriatik. Italiar hiri hartako jende langilearen %80k botoa ezkerrari ematen zion lehen. Orain, gehiengoa langabezian dago eta Liga bozkutzen du, Salviniren alderdi utraeskuindarra. “Ezkerrek traizio egin digu”, dio 49 urteko Emanuele, abandonaturik sentitzen den langileetako batek. Ezkerra desgertu egin da auzo langile historikoetan eta ultraeskuinak irabazi du, “italiarrak lehenago, bukatu dira etorkinak” mezua zabalduz.

Historia hori ez dagokio soilik Italiari. Gainerako Europan ere giro hori dabil, ezkerreko erakunde, alderdi eta sindikatuek euren izaerari uko egin diotelako. Kapitalarekin akordioak eginez eta gobernuak edo administrazioak oso modu eskasean kudeatuz –buruzagien arteko ustelkeria barne–, langileak eta sektore herrikoiak engainatu dituzte. Bestela, nola uler liteke langileak eta migratzaileak biltzen diren guneetan eskuinak eta ultraeskuinak irabaztea?

Espainiako Parlamentua berritu da duela gutxi –euskaldunen presentziarekin–, eta orain udalak, foru aldundiak, gobernu autonomoak eta Europar gainera ere bai. Garaia da egoerari aurre egin eta langileak eta jendarteko sektore zapalduenak babesteko, izan emakumeak edo migratzaileak. Beharrezkoa da ezkerreko baloreak sustatzea, hala nola justizia, askatasuna, elkartasuna, berdintasuna, integrazioa, autodeterminazioa, gardentasuna, Kapitalaren eta ustelkeriaren kontrako mobilizazioa... Gizarte justu, aske eta solidarioago baten alde gaudenon ekina eta konpromisoa eskatzen du horrek. ●

ERREAKZIOAK SAREAN



PODEMOSEN MUNDUA EZ EZIK, ABERTZALEEK INDAR GUTXIAGO BATZEN DUTE BAI NAFARROAN, BAI IRUÑEAN. UPNRI CSEKIN AURKEZTU IZANAK EZ DIO BABESIK KENDU. ETA HAU DA NAFARROAKO ERREALITATE SOZIOPOSITIKOA. DEUSKAL PROIEKTU NAZIONALAK PORROT HANDIA JASO DU

@SA_Aitor



PSN-K DAUKA ZARTAGIA KIRNETIK. HAIEN ERABAKIA IZANGO DA ESPAINOLISMOARI LEHENTASUNA EMOTEA USTELKERIA ETA XAHUTZEA BANDERA GISA DUEN GOBERNU BATEN ALDE, ALA BURUA ERABILTZEA ETA, BALDINTZA GOGORRAK EGON ARREN, ALDAKETA BULTZATZEA

@daneldeprado



PODEMOSEKO DIPUTATUAK: ASTURIAS: 9TIK 4RA GAZTELA MANTXA: 3TIK 0-RA EXTREMADURA: 6TIK 4RA GAZTELA LEON: 10ETIK 1ERA BALEARRAK: 10ETIK 6RA ARAGOI: 14TIK 5ERA MURTZIA: 6TIK 2RA MADRIL: 27TIK 7RA KANTABRIA: 3TIK 0-RA KANARIAK: 7TIK 3RA NAFARROA: 7TIK 2RA

ZUHAITZAK BIZIGARRI BERRIA BEHAR DU

@PabloMM



BETIBERDINISMOA GORROTAGARRIA DA

@martin_kitto



BA MADRILEN VOX-EK GOBERNATZEAK NI INOIZ EZ NAU URRUN HARRAPATUKO

@HiginiaRoig



BI HERRI, BI BIDE: ESKOZIA, EUROPAZALEA, BREXITAREN AURKAKOA; GAINERAKO BRITAINIA HANDIA, EUROSZEPTIKOA, BREXITAREN ALDEKOA

@aimar_etxe



GUREAN ESKUIN ESPAINIARRAK LORTU DITUEN EMAITZA KASKARRAK AZPIMARRATZEN DITUZTENEI: EAJREN BOTO EMAILEEZ INGURATUTA BIZI GARA, ETA EZ DITUZTE EZKERREKO POLITIKAK EGITEN

@inaxioesnaola